“Turismoa sustatzen ari gara Kantabrian bagina bezala”

MIREN SEGUROLA
UEMA-KO KOORDINATZAILEA

Bermeora, Zumaiara eta Leitzara etorritako bisitariei galdetu zaie ea zer iritzi duten euskararen inguruan, eta bisitarien %95ak erantzun du ez duela inolako arazorik izan euskararekin. Askok estimatu dute tokiko hizkuntza ezagutzeko aukera eta batzuek esan dute herri horietara joateko arrazoietako bat dela euskara. Aldiz, gurean, *Game of thrones*-en sukarrak eraginda, turismo eragileak euskara ezkutatu nahian dabiltza. UEMAk bideratu ditu hiru inkestak hiru herrietan eta Miren Segurolari egin diogu elkarrizketa.

ONINTZA IRURETA AZKUNE
DANI BLANCO

Bisitariei galdetu zaie ea euskara eragozpen izan al den. Horrelako galderak egin beharra ere... Euskara erakusteko beldurrez gabiltza eta horrelako inkesta baten beharra genuen lasaitzeko?
Guri udaletatik kezka iristen hasi zitzaigun bereziki *Game of thrones* [Zumaian eta Bermeon grabatuak] eta *8 apellidos vascos* [Leitza agertzen da] filmak egin eta gero. Udalak kezkatuta zeuden, zeren filmen ondorioz, batik bat ostalariak eta merkatariak, euskara gordetzeko ahaleginean ari ziren. Udalak hasi ziren esaten neurtu beharko genukeela herri horietan turismoak zein eragin linguistiko zuen.

Gure pertzepzioa beti izan da hona datozenek euskararekiko ezer txarrik ez daukatela, areago, modu positiboan hartu daitekeen kontua da hizkuntza. Guretzat, pertzepzioen froga moduko bat izan da inkesta. Turismo eragileekin egitea aurreikusten dugun lanketarako argudio sorta bat daukagu orain esku artean.

Esan duzu hiru udalerri horietako udalek antzeman zutela herrian hizkuntza erabilera aldatzen hasiak zirela?
Bereziki ostalaritzan. Menuak gaztelaniaz eta ingelesez jartzen hasi ziren, eta euskara baztertzen. Merkataritzan euskararen aldeko kanpainak aspalditik egin dira, eta neurri batean horraino gainditua zegoela ere uste zen. Eta orain datorren jendeagatik atzera egiten ari gara? Udalak kezkatuta zeuden.

Nor izan duzue buruan inkestak egiterakoan?
Xede talde bat turismo sustatzaileak izan dira. Gaur egun sustatzen den turismoak ez du inondik inora hizkuntza aintzat hartzen, eta guk uste dugu hizkuntza aintzat hartuta turismo mota bat sustatu daitekeela, gure herrientzat jasangarria izan daitekeena.

Bigarren xede taldea turismo eragileak dira, hau da, ostalaritza eta merkataritza.

Dena dela, modu integralean egin behar da lan. Hau da, udalak saldu dezake herria euskarari lotua, baina turismoa sustatzeaz arduratzen den eskualdeko garapen agentziak bere ekimen turistikoetan euskara baztertu badu edo ostalariek eta merkatariek euskara ezkutatzen badute, udalaren asmoek ez dute arrakastarik izango. Eskualdeko kontuekin ari naiz, baina Eusko Jaurlaritzak hemengo turismoa sustatzen du nazioartean. Hark ere beretik egin beharko du, orain behintzat ez dio gure ildoari jarraitzen. Guk ere badugu lana, udalak konbentzitu behar ditugu, eta agian, herritarrentzat ere sentsibilizazio kanpainak prestatu behar ditugu.

Azken finean, turismo eredua goitik behera zalantzan jartzen da. Gure eredua baliabide naturaletan eta gastronomian oinarritzen da. Hortik kanpora ez dago ezer. Turismoko lobbyei azaldu behar zaie hizkuntzan eta euskal kulturan oinarritutako turismoa bultzatzea beharrezkoa dela. Orain inork ez du jorratzen bide hori, eta ez gara ari esaten orain arteko altxorrak erakutsi behar ez direnik.

Zuk esana da: “Turismo sektorean euskara nabarmentzeko erabaki ausartak behar ditugu, gaur egun egiten ari denaren kontrako norabidean”. Kontrako norabidean ari gara, alegia.
Basque Culinary Center, Bilbao Exhibition Centre, Bermeo Tuna World... Kontrako norabidea ari gara saltzen.

Euskarak duen erakargarritasunagatik Txinan oraintxe atera dute auto bat "marrazo" izenekoa. Txinatarrak guri "marrazoa" hitza harrapatzen eta gu haiei Exhibition Centre esaka. Kontrakoa egin behar dugu: erakutsi, badaukagulako zer erakutsi, Europako hizkuntza zaharrena da, aberatsa da, eta hainbat herritan oso bizirik dago. Erakunde publikoak horrela ari direnean, herriko ostalariari ezin diozu esan: "Hi, jar ezak menua euskaraz!". Behekoan eragiteko goikoak ere norabide berean joan behar du. Turismoaren lobbyak eta erakunde publikoak kontrako norabidean doaz.

Udalerri mailara etorrita, gure herrietan turismoa garapen agentzietatik bideratzen eta sustatzen ari da. Turismo teknikariekin-eta harremanetan hasi gara orain eta ez zituzten sekula lotu turismoa eta hizkuntza. Ez dute horretaz pentsatu ere egin. Haiek jendea daukagunera nola erakarri pentsatzen ari dira: Azpeitian adibidez, Loiolako monasterioa, San Inazioren ibilbidea, eta Xoxotetik buelta bat. Eta hori nola komunikatu? Ingelesez, gaztelaniaz... Ez zaie bururatzen turismoak euskararekin erlazioa izan dezakeenik ere. Kantabrian turismoa sustatzen ariko balira bezala ari dira, irizpide berdinekin.

Zeren beldur da euskara ezkutatzera jotzen duena?

Turismoa sustatzen ari denak uste du ez dela beharrezkoa, eta areago, euskara erakutsiz gero turismoaren bidez bilatzen den etekin ekonomikoa jaitsiko litzatekeela. Aldiz, ostalarien eta merkatarien artean oraindik badago euskararekiko sentsibilitaterik ez daukana. Sinesmen oker baten ondorioz uste dute praktikoagoa dela ingelesez eta gaztelaniaz jardutea. Eta jakina, horiek ere pentsatzen dute, euskarari lehentasuna emanda eta guk planteatzen ditugun irizpideak erabilita, turismoak ekartzen dien etekin ekonomikoaren zati bat galdu dezaketela.

Baina emaitzek diotenez, oso jende gutxi sentitu da deseroso euskara inguruan izanda. Gainera batzuek estimatu dute bertako hizkuntza agerian egotea eta batzuentzat herri horietara joateko arrazoietako bat izan da euskara.

Euskaldunok badugu beste kulturekiko enpatia. Italiara bagoaz hango esentzia jaso nahi dugu, ez gara ibiliko auzo txinatarretik atera gabe. Logika osoa du. Beste kontu bat. Bizkaia aldetik jende dezente joaten da Leitzara. Zertara? Gurasoak haurrekin joaten dira. Umeak ikastolan dituzte, baina sarri giro erdaldunean bizi dira eta gune euskaldunen bila ibiltzen dira. Bilbotik Lekeitiora joaten dira arrazoi berberengatik. Turismo mota hori ere badago, herri euskaldunen bila dabiltza.

Gure hizkuntza erakusteak dituen onurak baliatzetik urrun gabiltza orduan?

Euskara ezkutatzen dugu eta ohiko turismoa sustatu. Badira jarduera ekonomiko berriak izan daitezkeen eta jorratu ez diren aukerak, euskal kulturan oinarritutakoak: bertsolaritza, kazetaritza, literatura... Herri bakoitzean ditugu idazleak, bertsolariak... Oso ekimen zehatzak landu dira orain arte, Leitzan Iñaki Perurenak daukan museoa adibidez, harria gaitzat hartuta. Baina ekimen pribatuak dira. Erakunde publikoetatik inork ez die heldu antzeko ildoei. Zeinek aztertuko ditu ildo berri horiek? Zeinek lagunduko ditu? Betiko pintxoak eta toldoak ondo daude, baina beste zerbait eskaini dezakegu. ●